



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
B I Z K A I A

**PRENTSA-OHARRAç**

**Urriak 24. Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuaren batzorderatzea Bizkaiko Batzar Nagusietan**

**Bizkaibusen kabinetan Barik txartelak saldu eta errekaratuko dirala iragarri dau Garamendik Batzar Nagusietako Batzordean**

*Bilbon, 2012ko urriaren 24an*

Herri Lan eta Garraioetako Foru Diputatuak, Itziar Garamendi andreak, Socialistas Vasco Taldeak eskatutako batzorderatze-eskari erantzunez, azaldu egin ditu Derion egoan Bizkaibusen kabinea kendu izanaren arrazoiak eta, bide batez, argitu egin dau txartelak saltzeko lekuok etorkizunean zer egingo daben. Garamendi Diputatu andreak iragarri dau Bizkaibusen kabinetan hemendik gitxira Barik txartel anonimoak “saldu eta errekaratu” egingo dirala. Bizkaiko Garraioen Partzuergoak aurreikusi dituan modalidadeetako bat da Txartel anonimo hori. Barik txartelaren erabilerea martxan da urriaren 11tik hasita.

Diputatu andreak iragarritako horregaz aurre egin deutse oposizino Taldeek botatuko aieruei, egin-eginean salatu egiten eben-eta Aldundia “aienatzen” ebilela txartelak saltzeko lekuok eta Derioko kabinea kentzeak berretsi egiten ebala salmenta-lekuok kentzeko asmoa erabilela Aldundiak. Garamendi Diputatu andreak adierazo dau kabinea arrazoi “objektiboakaitik” kendu dala, ze, batetik, orduko hiru titulo besterik ez zituan saltzen eta, bestetik, hurrean estanko bi dagoz txartelok bertan erosteko. Kendu bada izan da, Diputatuaren esanetan, “baliabide publikoak zuhurtziaz erabiltearren”, urtean 60.000 euro inguru aurreztuko diralako. Diputatu andreak ezetsi egin dau kabinen egitekoak aienatzen diharduenik, kabinetan Barik txartela saltzea aurreikusten da eta.

Batzar berean, Bildu Taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamen bat eztabaidatu da, non Foru Aldundiari eskatzen jakon azterlan bat egin dagiala baloratzeko Bizkiabusen erabiltzaileentzako deskontuak jarteko aukerak dagozanentz. Bilduk gura dau “garraio publikoa bultzatzea” eta “gehien erabilten dabenek zama ekonomiko handiagorik ez izatea”. Ekimena onartu egin da, baina Talde ekimengilea izan ezik beste Talde guztiak abstenidu egin diralako, proposatutakoaren funtsarekin ados egon diran arren kontuan hartu dabelako be azterlan hori daborduko eginbidean dauela Bizkaiko Garraioen Partzuergoak, txartel bakarra martxan jarteari buruzko “Tarifak intergratzeko azterlana” deritxanaren barruan hain zuzen.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

Bizkaibus zerbitzuari jagokonez be, Batzordeak ahobatez onartu dau “autobusez bidaiatu eta bizikletak eurekin eroan ahal izateko behar daben guztiaz” erabiltzaileei informatzeko eskatuz Bizkaiko Talde Popularrak aurkeztutako beste Arauz Besteko Proposamen bat.

**Barik txartelari buruzko proposamena kendu egin da.**

Azkenik, Euzko Abertzaleak Taldeak kendu egin dau Bizkaiko Garraioen Partzuergoari Barik txartelean aldaketak sartu dagizala eskatzeko aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena. Kendu izanaren arrazoia izan da ekimenean proposatutakoak daborduko sartu dituala Partzuergoak. Egin-eginean, ekimena uztailearen 10ean egoan aurkeztuta, Barik sistema erabat indarreratu baino askoz be arinago.

---



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

**24 de octubre . Comparecencia en comisión de la Diputada foral de Obras Públicas y Transportes en las Juntas Generales**

# Garamendi anuncia en las Juntas Generales que las cabinas de Bizkaibus venderán y recargarán la tarjeta Barik

*Bilbao, a 24 de octubre de 2012*

La Diputada foral de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha comparecido hoy en las Juntas Generales, a petición del Grupo Socialistas Vascos, para explicar los motivos por los que se suprimió en agosto la cabina que Bizkaibus mantenía en el municipio de Derio y ya de paso aclarar el futuro de estos lugares de expedición de títulos de transporte. Garamendi ha anunciado que las cabinas de Bizkaibus “venderán y recargarán” en un futuro próximo la tarjeta Barik anónima, una de las dos modalidades prevista por el Consorcio de Transportes de Bizkaia, cuyo uso se ha generalizado en el territorio desde el pasado 11 de octubre.

La Diputada ha salido así al paso de las insinuaciones lanzadas por los grupos de la oposición que, en un primer momento, han coincidido en denunciar en la Comisión que la Diputación estaba “vaciando de contenido” estos puntos de venta y que la retirada de la cabina de Derio era un hecho que demostraba que el departamento estaba por la labor de eliminar estas cabinas. Garamendi ha manifestado que esta supresión se debe a causas “objetivas”, entre las que ha destacado que la cabina vendía solo 3 títulos de transporte a la hora y que además, a escasos metros, existen dos estancos que realizan esta misma función. La supresión obedece a una “optimización de los recursos públicos”, ya que se ahorrarán unos 60.000 euros al año. La responsable foral ha negado que la Diputación haya vaciado de funciones a las cabinas, ya que se prevé puedan vender la tarjeta Barik.

En la misma sesión, la Comisión de Obras Públicas y Transportes ha aprobado una proposición no de norma del Grupo Bildu que insta a la Diputación a realizar un estudio sobre la implantación de abonos mensuales y títulos de estudiantes en el servicio de Bizkaibus. La coalición abertzale cree que la inclusión de estos billetes servirá para “potenciar el uso del transporte público y despenalizar económicamente a los usuarios que con más frecuencia hacen uso del mismo”. La aprobación ha sido posible gracias a la abstención del resto de grupos de la cámara que han mostrado su coincidencia con el “fondo” de la propuesta, aunque han advertido que el estudio lo está realizando ya el



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

Consortio de Transportes de Bizkaia dentro del conocido “Estudio de Integración Tarifaria” para la puesta en marcha del billete único.

En relación también al servicio de Bizkaibus, la Comisión ha aprobado por unanimidad una propuesta no vinculante del Grupo Popular Vizcaíno para que la Diputación informe en las paradas de “todo lo concerniente y necesario” al uso de la bicicleta en los autobuses.

**Retirada la proposición sobre la Tarjeta Barik**

Por último, el Grupo Nacionalistas Vascos ha retirado la proposición no de norma en la que pedía al Consorcio de Transportes de Bizkaia la introducción de cambios en la tarjeta Barik, por considerar que sus propuestas habían sido recogidas ya por este organismo encargado de promover el título “sin contacto”. El registro de esta iniciativa se había producido el 10 de julio, tres meses antes de la puesta en marcha definitiva y masiva del sistema Barik.